

Bergaran argi daukate, 2007an berek egingo dute

Iaz bezala, datorren urteko festa Debagoienean izango da; Bergaran, hain zuzen ere. Aranzadi ikastolak antolatuko du Kilometroak 2007, eta leloa aukeratua dute: «Argi daukagu». Ez da izango lehen aldia, bigarrena baizik. 1991n izan zen lehenengoa, eta orduan lekukoa Oiartzungo ikastolari eman zioten. Aurten alderantziz gertatu da. Oiartzunek pasatu dio lekukoa Bergarari. Aranzadiko lehendakaria eta zuzendaria atzoko ekitaldian egon ziren. Haurtzaroren antolakuntza goraiatu eta gero, aurtengo leloari heldu zioten: «Bergaran ere 'ingo ñeu, ingo yeu'». Hori argi daukate. •

«Euskal Herriko hezkuntza sistema propioa» eraiki nahian

I.I.
OIARTZUN

Ikastolako lehendakari Arantza Manterolak zinez eskertu zuen atzoko hitzordura bertaratu zirenen parte-hartzea, guztiek ere euskararen eta ikastolen aldeko babesa agertu zutelako. Nolanahi ere, horiek ez ezik, azken hilabeteotan atzoko festa aurrera eramanez ahal izateko lanean aritu diren guztiak ere modu berezian aipatu zituen lehendakariak.

«Euskara eta ikastolak herri proiektuak izan dira eta dira. Eta oraindik ere, herritarren musu-trukeko lanaren beharra dute», adierazi zuen Manterolak. Segidan, hauxe erantsi zuen: «Ezin ahaztu, bestalde, Haurtzaro ikastolak Kilometroak 2006 antolatzeko dituen arazoak. Urte eta erdiko lana ez baitugu hartu beste zereginik ez dugulako».

Lehendakariak aipatu zenez, Haurtzaro ikastolak ia berrogei urteko ibilbidean ondo frogatu du eskaini duena: «Ka-

litateko hezkuntza, proiektu euskalduna, Oiartzungo herrian errotuta, integratzailea, nazionala eta eguneroko jardueran publikoa dena».

Hala ere, proiektu horrek etorkizunean bere horretan jarraitzeko baliabide egokiak behar dituztela esan zuen: «Giza baliabideak ezin hobeak ditugu, baina ezin dugu gauza bera esan baliabide ekonomikoak eta fisikoak».

Baliabide ekonomikoak buruz hitz egiterakoan, adibidez, argi mintzo zen: «Nahiz eta aitorzen dugun, ikastolen mugimenduko beste ikastolekin erkatuz gero, gure egoera ez dela txarrenetakoa, esan behar da kontzertaziotik heldu zaigun dirua ez dugula nahikoa, eta ez datorrela bat gure herri onuradun izaerarekin». Baliabide fisikoak ere «eskasak» dituztela argitu zuen: «Hain zuzen, eskasia hori gainditzeko eskatu genuen Kilometroak antolatzeko. Haurtzaro ikastolaren espazio beharra nabarmena da dagoeneko, eta bi edo hi-



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Zinta mozketak eman zion hasiera ospakizunari.

ru urte barru, egoera larriagoa izango da. Beste eraikin bat behar dugu gure hezkuntza proiektua behar bezala aurrera eramateko, eta hori lortzeko pauso batzuk ematen ari gara. Jai honekin biltzen den dirua horretarako bideratuko da».

Nolanahi ere, «hazteko lur eremua» behar dutela eta horretarako Oiartzungo Udalaren inplikazioa «ezinbestekoa» dela adierazi zuen. «Udalak gure beharrene berri du, baina gure premiez eta urgentziak

jabetzea beharrezkoa dugu, eta erantzun egoki, zehatz eta azkarra emateko eskatzen diogu», gaineratu zuen.

Horrez guztiaz gain, Manterolak gogorarazi zuen ezin dela ahaztu ikastolen sorrerako arrazoi nagusia zein den: «Euskal Herriko hezkuntza sistema propio bat eraikitzea».

«Egoera eta behar guztien gainetik hori izan da gure lanaren ardatza, eta hori izango da hementik aurrera ere», aipatu zuen Manterolak.

vasos reciclables, que limitó considerablemente el volumen de basuras y facilitó las tareas de limpieza. También dio las gracias a todos aquellos que hicieron suyo el lema «ondo pasa, pasatu gabe» y a quienes se acercaron hasta Oiartzun utilizando el transporte público, lo que evitó que se produjeran atascos de importancia.

Homenaje a los presidentes

Otro de los actos centrales fue el homenaje realizado al pueblo de Oiartzun y personificado en los diez presidentes que la ikastola Haurtzaro ha tenido a lo largo de sus casi cuatro décadas de existencia: Julián Bergaretxe -fallecido-, Román Irigoien, Juanito Iñarra, Martxel Ansa, Jesús Mari San Román, Juan Inazio Ansa, Iñaki Portugal, Anjel Bergaretxe, Jokin Gartzia y Arantza Manterola.

La emisión de un vídeo sirvió para repasar la historia de este centro y las dificultades que ha tenido que sortear desde que en 1967 naciera en una bajera con el nombre de Escuela Parroquial Haurtzaro. Desde entonces no ha parado de crecer. El dinero recaudado ayer permitirá dar nuevos pasos en esa dirección. Como rezaba el lema, «Ingo ñeu, ingo yeu». Mientras, la ikastola Aranzadi de Bergara ya prepara la cita para octubre del próximo año.



Haurtzaro ikastolak izan dituen hamar lehendakariak omenaldi beroa egin zieten.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS